

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Antonio Arrieta Etxaniz

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1924-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Melitongua kale-etxean jaio zen, gaur egun Pedro Mugurutza etorbidea dagoen lekuan zegoen. Sei anai-arreba izan ziren. Aita Arriaga auzoko Aldai baserrikoa, eta ama Arriaga bailarako Karkizao baserrikoa zen. Umea zela etxea erre eta Arriaga auzoko Aldai baserrira joan ziren bizitzera. Beranduago kaleko San Frantzisko kalera itzuli ziren. Eskola publikoetan hasi eta zortzi urterekin marianisten Pilarreko eskolara joan zen gerra hasi zen arte. Marrazketa ere ikasi zuen gau-eskolan. Hamalau urterekin etxeko tailerrean hasi zen lanean eskopeta-baskulak egiten. 1940. urtean “Arrieta y Compañía” lantegia sortu zuten, eskopeta osoak muntatu eta doitzeko. Lantegiak “Manufacturas Arrieta S.L.” izena hartu zuen 1955. urtean. Elkarrizketa garaian izen berberarekin jarraitzen zuen ehizarako eskopetak eta fusilak egiten. Jose Soralezeko Eitzagaetxetxo baserriko Margarita Oregirekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba dituzte.

Zintak

EGB-056

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-03-11
- **Iraupena:** 112 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Eskola publikotik Pilarrera

- **Erref:** EGB-056/004
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:09

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Lehenengo, eskola publikoan ibili zen Don Felix maisuarekin. Gero, marianisten Pilar ikastetxean jarraitu zituen ikasketak gerra atera zen arte.

2. Gerra denboran, Karkizanora eta Irabanetara

- **Erref:** EGB-056/014
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:21:44. **Bukatu:** 00:22:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Frontea Elgoibarren egon zen denboran, Bittor eta Jose Antonio gurasoen jaiotetxeetan egoten ziren Karkizanon (amaren jaiotetxea) eta Irabanetan (aitaren jaiotetxea). Sei anai-arreba ziren.

3. Familiako lantegia

- **Erref:** EGB-056/024
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:34:01. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

14 urterekin etxeko tailerrean hasi zen lanean Jose Antonio eskopeta-baskulak egiten. 1940. urtean, 'Arrieta y Compañía' lantegia sortu zuten aita eta beste hiru bazkiderekin, eskopeta osoak muntatu eta doitzeko. 1955. urtean, sozietatea banatu eta lantegiak 'Manufacturas Arrieta S.L.' izena hartu zuen.

4. Aitaren ibilbidea eskopetagintzan

- **Erref:** EGB-056/026
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:41:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Bittor eta Jose Antonioaren aita I. Mundu Gerrako baziharduen armagintzan.

Gernikako Astran aritu zen pistolagintzan. Handik Elgoibarrera bueltatu, eta anaia batekin ikasi zuen eskopetak egiten. Gerra aurrean, eskopeta-baskulak egiten zituzten: besteentzako egiten zuten lana. 1940an hasi ziren eskopetak osorik egiten. Ehizerako eskopetak eta errifleak egin izan dituzte.

5. Eskopetagintza

- **Erref:** EGB-056/030
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Eskopetagintzari buruzko azalpenak. Eskopetak % 80 eskulana duela diote Arrieta anaiek. Grabatzaileen lana, ordu asko sartu beharrekoa. Eskopeta fina egitea "lan konplexua" da, dena neurrira egiten baita. </p>

6. Gerra kontseilua

- **Erref:** EGB-056/040
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:03:31. **Bukatu:** 01:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra denboran, udaletxean egin zen gerra kontseiluan egon zen Jose mutil gaztea zela. Barretar bat fusilatu zuten kanposantuan, espioitza leporatuta.

7. Fusilatuak

- **Erref:** EGB-056/041
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:05:56. **Bukatu:** 01:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian herrian fusilatu zituzten gizon batzuen izenak aipatzen dituzte: Angel 'Mutriku', 'Gaztezi', Don Zelestino abadea...

8. Herritik bidali zituzten emakumeak

- **Erref:** EGB-056/043
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:08:50. **Bukatu:** 01:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Frankistek gizona ihes eginda zuten zenbait emakume herritik bota zituzten, ume eta guzti. Trenbidetik oinez joan omen ziren Maltzagara.

9. Tropak herrian sartu ziren eguneko giroa

- **Erref:** EGB-056/044
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:09:50. **Bukatu:** 01:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Tropak Elgoibarren sartu ziren egunean Trenbide kalean eta herrian zer mugimendu gogoratzen dituen kontatzen du Josek. Jendeak trenean ihes egin zuen Bilbo aldera.

10. Soldaduak etxean hartu beharra

- **Erref:** EGB-056/045
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:11:57. **Bukatu:** 01:14:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Tropak herrian sartu zirenean, Díez de Rivera teniente koronelaren bandoa jo zuten. Arrietatarrenean lau erreketek egon ziren lo egitera.

11. Bonbardaketak eta balazoak

- **Erref:** EGB-056/046
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:14:03. **Bukatu:** 01:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Abiazioak jaurtitako bonbek eragindako txikizioak. Jendea etxetik irten ezinda, bonba bat Jose Antonio eta Bittorren etxearen kontra-kontra bota omen zuten...

12. Kanoi- eta tiro-hotsak

- **Erref:** EGB-056/049
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:18:14. **Bukatu:** 01:20:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, Joseren aitak eta osabak Donostian egiten zuten lan, eta Jose eta etxeakoak kanoikadak entzutean Markina bideko etxe batean babesten ziren. Gogoan dituzte kanoi- eta tiro-hotsak. Tiroei "pakun"ak esaten zieten.

13. Gerra denboran Elgoibarren ibilitako kapitaina

- **Erref:** EGB-056/051
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:21:23. **Bukatu:** 01:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Soldadutzan eduki zuen kapitain bat Elgoibar inguruan ibili zen gerra denboran. Inguruko mendi eta parajeen izenak aipatu omen zizkion Bittorri. Elgoibarren lau kanoi egon ziren mendigain batean. Eibarren kanoi bat omen zegoen, baina handia.

14. Nazionalak Azkoitia aldetik sartu

- **Erref:** EGB-056/053
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:22:56. **Bukatu:** 01:23:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Nazionalak Azkoitia aldetik sartu ziren Elgoibarren, Azkaratetik behera. Soldaduak kalean gora, desfilean, sartu ziren herrian. Soldadu asko ziren, "dena erreketek".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com